



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Zuek zarete kartzela batean zaudetenak, ez ni”

Kevin Heredia | Bera al da?

Kamioi-gidari ijitoa. Literaturaz idazten du astero Berrian, sekula autograforik sinatu ez duen honek.

UNAI BREA

Argazkia: Nùria Juan Serrahima

Non zinen 2007ko iraila aitzin?

Prentsako orrialdeetatik kanpo. Alegia, ia-ia ezereza dei diezaiokegun eremu batean, informazioaren ilunpean, munduaren %95a bezala.

Langilea, euskalduna, literaturan aditua. Ijitoez neukan estereotipoa hautsi didazu!

Ba ohitu beharko duzu makurtzen eta zatiak biltzen, ze estereotipoak egunero hausten dira!

Zer egiten du garraiolari batek klasiko artean, *Playboy* zaharrez inguratuta egon beharrean?

Kontxo, azkar bildu dituzu estereotipo zatiak... Bada, pornografia ere irakurtzen dut, ez pentsa. Bai, bai, irakurri, Mirandek bezala. Dena den, *Playboy* zaharrak plastikotan bilduta ditut, ea bildumagileren batek erosten dizkidan noizbait.

Elkarrizketa hau prestatzeko zure azken zutabeak irakurtzea beste erremediorik ez dut eduki, eta iruditut zait zuk ez duzula literaturaz hitz egiten ia, zuk literatura egiten duzu besterik gabe.

Askoren gaitza da: asmo batekin hasi eta erabat diferentea den emaitza ateratu. Idazle asko, adibidez. Nobela bat egiten hasi eta beraien bizitza kontatzen bukatzen dute... Beraz, literaturaz hitz egin nahi, eta konturatu gabe literatura *egitea*, ez zait iruditzen dagoen kirmenik handiena.

Igandeetan irakurtzen omen da gehien egunkaria, baina zure zutabeak... Benetan uste duzu herri xeheak halakorik irentsi dezakeenik Martiniarekin batera?

Joño, zu ere Martini zalea! Nik ere asko edaten dut, batez ere idazten hasi aurretik. Galderari

erantzunez: nire zutabeak oso merkeak dira; herriaren ahotik hartzen ditut debalde, eta debalde ematen dizkiot *Berriaren* irakurleari.

Zergatik jotzen dugu gero eta gehiago idazleengana gidaritzea espiritualaren bila? Besteon mixeria berak edo are larriagoak edukiko ez balituzte bezala...

Frantsesen errua da hori. Faltsua da, erabat, idazlea eta intelektualak ezinbestean lotzen dituen ustea. Egongo da idazle intelektualik, baina ezagutzen dut XX. mendeko filosoforik handienetako batekin, Homer Simpsonekin, buruz buru lasai asko ibil litekeen kamioi gidaririk ere.

Zer moduz buru-osasuna? Nortasun anizkoitza diagnostikatu omen zizuten behin.

Buru-osasuna ondo, eskerrik asko. Tira, gairontzeko gizon-emakumeena bezain ondo. Dena den, Leopoldo Maria Panero parafraseatu nahi nizuke: zuek zarete kartzela batean zaudetenak, ez ni.

“Nor da benetan Kevin Heredia?” entzuteaz nazkatuta zaudelakoan nago, beraz ez dizut galdetuko, baina esadazu: Rikardo Arregi Saria emango balizute, nor joango litzateke jasotzera?

Horretan montoiatarra naiz; senitartekoren bat edo lagun bat joango litzateke seguruenik. Hartara zeremonia ere zertxobait animatuko litzateke, gitarra eta kaxoia jotzen, kultura sailburua dantzan... Bada garaia txapela –eta ez sonbreirua– kentzeko! ■